

Ze barri?

2000.ko
ABERRIAZ

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

45 zkia.

Urlatik Landetara

Elkarrizketa:

Joxerra Zubizarreta

Erreportaia:

Arizmendi Ikastola berria

Eskoriatzarrok munduan:

Elkartasunaren bidetik

**BADATOZ MILURTEKO AZKEN
GABONAK!**



Musakola Auzoa, z/b 20500 ARRASATE
Tfnoak: 943 79 18 80 / 943 79 21 25 / 943 79 24 11 Faxa: 943 79 21 25




Udalaitz, S.L.



Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGIAK



Araba Ibilbidea, 17
Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

Mazisi Okeita Denbele

Mazisi Okeita
Denbelek...

Horrela hasten da Jabier Muguruzak abesten duen Bernardo Atxagak idatzitako kanta bat. Poema-kanta honetan Mazisi Okeita Afrikaldetik etorritako gizon bat da. Bilboko taberna batean kafe bat hartzen dago. Isilik. "Zer ari ote da pentsatzen ..."

Azaroaren 10ean, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak "Literatura idazlearen esku artean" izenburupean antolaturiko literatur aste barruan Bernardo Atxagari entzuten izan nintzen. Betidanik gustatu izan zait gizon hau. Nik, neuk, Bernardo Atxaga moduan ezagutu izan dut beti, ze, denok jakingo duzue, bere benetako izena Joseba Irazu Garmendia dela eta, Bernardo, bere izen literarioa.

Ba, esan dizuedan moduan, Bernardori entzuten izan nintzen. Bere hitzaldia hasteko ordua baino hamar minutu lehenago Fakultadeko areto nagusian nintzen aulki bat hartzeko asmoz. Bestela, banekien ez nuela jarrita egoteko aukerarik izango. Eta, zein inportantea den gustora egotea zentzumen guztiak erne izateko.

Ez iezadazue galdetu zeren gainean berba egin zuen. Esan diezazueket, agian, Safo, VII. mendean K.a.tik jaiotako poetisa aipatu zuela. Eta, Safok idatzitako poesiaren eta gaurko poeta batek idatzitako poemen artean, ez dagoela ia alderik.

Biak, poesiaren bitartez mundu honetako galdera unibertsalei erantzuten saiatzen direla. Biek, barneko mintzoarekin berba egiten dutela.

Esan genezake mundua bi aurpegiko mundua dela. Bata, materialista, zientifikoa, eta, bestea, espirituala. Mundu zientifikoa, asmakizun guztiak medio direla, izugarri aldatu da. Baina, gure barneko mundu espirituala zenbat aldatu da, bada?. Gure beldurak, ametsak, amodioak, ez al dira gehienetan antzeratsuak izaten?

Esan diezazueket idazlearen beratasunaz mintzo zela. Idazleak, esponja bailitzan busti behar duela gorputza bere ingurunean bizi duenarekin. Eta, blai-blai eginda gorputza hitzen bitartez, hizkuntzaren bitartez, mintzo gatzazkiola elkarri. Istorioak kontatzen dizkiogula elkarri.

Esa diezazueket beste gauza askotaz ere mintzo izan zela, eta, oso gustora egon nintzela ...

Baina, zer ari ote da pentsatzen Mazisi Okeita Denbele? Afrikaldeko bere herriskan ari ote da pentsatzen? Hango andre batengan? Hango lehortzeaz? Hango gerraz? Mazisi Okeita Denbele

Iñaki agiriano

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Iñigo Biain

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribecheberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Edurne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Bertako ilarraren kutsadura jenetikoa ekiditen

Batzuk gogoratuko duzue, joan zen urtean Eskoriatzako gazte talde bat Alabitxa inguruan ilarra (Erica sp.) jasotzen ibili zela, benetan eskertzekoa den jarrera erakutsiz. Urtebete pasa da eta hazi hori dagoeneko jaso den lekuan erein da.

Parke eolikoa egiterakoan, kamioien joan-etorriek eta eskabadore lanek eraginda, zonalde batzu kaltetuak geratu ziren. Obra hau aurrera eraman zutenek, ez zuten aintzat hartu inguru hauen interes naturalistikoa eta bertako landarearen garrantzia, Eskoriatzak duen ingurune aberatsena izan arren.

Hondaturiko inguruak berriz jatzeko, kontuan hartu beharrekoa da zonalde bakoitzak bere landaretza propioa duela, bertako girora ohituta dagoena. Bertako espezieen dibertsitatea mantendu nahi bada, eta

hau izan da hain zuzen gazte talde honen helburua hasieratik, garrantzitsua da oso tokian tokiko hazia erabiltzea, kutsadura jenetiko gerta ez dadin. Hau da, kasu honetan ilarra kanpotik ekarri izanez gero, espezie bera izanda ere, landarearen barietatea aldatu egiten da. Kanpoko landareak ez ditu izango bertakoak daukan ezaugarri berdinak, bien hartean konpetentzia hasten delarik, ondorioz bertakoen ezaugarri jenetikoak aldatzen hasiko lirakeelarik. Arazo hau da, hain zuzen ere, bertako espezieen desagarketaren arrazoi nagusienetakoa: kutsadura jenetikoa.

Hortaz, gainera begiratuta inportantzia haundirik ez duela badirudi ere, sakonean aztertuz gero, eskertzekoa da Eskoriatzako gazte hauek egindako lana.

Hiru pailaso parranda egiteko gogoarekin

Parrandarako gogo biziz etorri ziren aurten Eskoriatzara Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoak, euren ikuskizun berriak ere halaxe baitu izena, Parrandan. Eguna Abenduaren 2a izan zen, Sapatua, eta tokia kiroldegia. Kanpoan, egia esan ez zuen parrandarako giro egokirik egiten, baina kiroldegiko atea zeharkatzerakoan haur uholde baten berotasunak giroa goxatzen zuen. Haurrak, eta euren gurasoak, noski.

2000 eta 2001 urteetarako hiru pailasoek prestatu duten ikuskizun hau erritmoz eta musikaz betea dago, beraien ohiko ikuskizunak bezala, baina kasu honetan eskenografia haundiagoarekin, medio zabalagoekin. Esan bezala, Eskoriatzako kiroldegia hurrez lepo Sapatu hartan, eta Takolo, Pirritx eta Porrotx nahiko urduri hasieran, alde batetik ikuskizunaren estreinua zelako, eta bestetik horrenbestera medio inoiz z zutelako mugitu. Baina han bildutako gazte eta gurasoen laguntzak berehala lasaitu zituen, eta oso ikuskizun bikaina eskeini ziguten. Ia datorren urterako zer prestatzen duen hirukote honek...

Takolo, Pirritx eta Porrotx hirukoteak dantzan jarri zituen kiroldegiko gaztetxoak



Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



OTZETA jatetxea

Aranburuzabala kalean
ireki berria

Tfnoa.: 943 71 55 07

Badatoz Milurteko azken gabonak!

Mende honetako azken urtea amaitzeaz da, eta amaitzeaz da ere milurte honetako azken mendea. eta nola ez, milurtekoa bera ere badoakigu. Baina horrenbeste efemeride doazen bitartean, XXI. mendean sartzear gaude eta hainbat eta hainbat titular irakurri ondoren, zalantza ezinbestekoa da: ondo al doa gure egutegia? 2001 urtean EEBBetako, eta ondorioz munduko lehendakariarik gabe sartuko gara, mahaira ateratzen dugun xerra hori edozein momentutan *txa-txa-txa* alai bat dantzatzen hasi daiteke, mundu osorako egunkari bakarra balego eskelek izango lukete lehen orria, azkena, kirolek eta kulturakoa, katarroak ahaztu eta lejonelari ongi etorria eman beharko diogu, eta nola ez, guzti hau ingelesez, edo gertuko bezala, gazteleraz.

Dena dela, eta izaki (piztia/abere) xumeak besterik ez garela ahaztu gabe, ezin hasiko gara modernitatez ornitutako garai hauetan ieroglifiko mistikoak argitzen. Gabonak dira, eta hain onak ez badira ere, ospatu beharrekoak ditugu datok... nahi ta nahi ez... nahiz eta jazten gaituen Estatu hau akonfesionala den...

Burutapenak burutapen, kaba hozkailuan daukagu hozten, eta angulak iadanik arraindegian enkargatuak. Familia berriro elkartuko da, eta kalean behar baino gehiago ikusiko gaituzte. Gabonak datoz, jaun andreok, eta hemen esandakoak esanda, benetan ondo pasatzea opa dizuet. Gabon zorionsuak, eta milurte berri on!

Abenduak 24, igandea. Gabon Eguna

13:00 Trikitixa Eskola ko ikasleekin kalejira

13:00-14:00 Herriko plazan Olentzeroren laguntzaileak egongo dira haurren eskutitzak jasotzeko.

17:00 Zaharren Egoitzan elkartu eta herriko kaleetan abestu beharreko gabon kanten entseia egongo da.

17:30 Olentzero kalez-kale ibiliko da herritarron kantuen laguntzarekin. (Ibilaldia: Zaharren Egoitza- San Pedro- Santa Ana- Olazar- Hidalgo- Dorleta- Goiko kale- Plaza)

Bai goizean, bai arratsaldean, herriko plazan gaztain erreak jateko aukera izango dugu.

Oharra: Gabon egun honetan, herritar guztiok baseritar arropak janztera animatu nahi zaituzte Udalak.

Urtarrilak 5, ostirala: 18:30 Erregeen Kabalgata

Urtarrilak 6, larunbata

13:00 Musika Eskolako Bandaren Gabonetako Kontzertua Parrokian

Erakusketa Kultur Etxean: Herriko artista gazteen erakusketa

Udalak 50.000 pta.ko saria emango dio obra onenari.

Egunak: Abenduaren 22tik urtarrilaren 1era

Ordutegia: astean zehar: 18:00-20:00

Igande eta jai egunetan: 13:00-14:00 / 18:00-20:00

Marrazki Lehiaketa

Gabonak izenpean Kultur Etxeak antolatutako marrazki lehiaketara aurkeztutako marrazki guztiak Intxaurtxueta polikiroldegian egongo dira erakusgai honako egunotan: abenduaren 26, 27, 28 eta 29an.

Eskaparate lehiaketa

Kultura Batzordeak eskaparate eta Gabon dekorazio lehiaketa antolatu du Eskoriatzako denda eta tabernen artean. Epaimahaiaren erabakia, irabazleak zeintzuk diren adieraziz abenduaren 28an jakinaraziko da.

Eskiatzera bidaia

Gazteria Batzordeak 12-18 urte bitarteko gazteentzako, Luz Ardidenera bidaia subentzionatua antolatu du. Irteera egunak: 2001eko otsailaren 10 eta 11. Izena emateko epea: Kultur Etxean edo liburutegian urtarrilaren 15a baino lehen. Gazteek monitoreen laguntza izango dute bidaia osoan zehar.

Prezioa:

Materiala alokatuz gero 10.000 pta.

Materiala alokatu gabe 8.500 pta.

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



kutxa

gizarte-ekintza
obra social



Pub **ALDATZ**

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

NEGUAK AGURRA EMANGO DIO UDAZKEN KULTURALARI

Negua etortzarekin batera Udazkenak agur esango digu, eta ondorioz, aurtengoan ere hain oparoa izan den Udazken Kulturala agurtu egingo zaigu.

Udazkenaren egun hotzenetan Detritus antzerki taldea izan genuen Eskoriatako giroa berotuz. Azaroaren 24an izan genituen Alcazar tabernan euren "Asexoría" lana aurkeztuz, eta esan bezala, giroa asko berotuz.

Azaroaren 25an Musika Eskolako Bandak urteroko Santa Zezilia kontzertua eskeini zuen Parrokian, eta ordu terdi beranduado Sebastian Lizaso, Ion Maia eta Igor elortza hurbildu ziren bete beteta zegoen Toki Alai tabernara, giro ezinobea jarriaz, eta bertaratuen belarriak bertsoez goxatuz.

Abenduaren 2an, Sapatua, eta aurreko orrietan irakurri ahal izan duzuen bezala, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailaoak izan genituen



Bertso afaria ere arrakastasua izan zen, bertsolari hirukote bikainarekin

Eskoriatzako kiroldegian, arrakasta bikainarekin.

Egun bererako rock kontzertua zegoen iragarrita Eskoriatzako pilotalekuan, baina azkenean atzeratu beharra egon zen, eta Abenduaren 16an egin zen.

Nahiz eta Udazken Kulturaletik kanpo izan, ezin aipatu gabe utzi, hauek ere ekitaldi kulturalak direnez, joan den hilabetean izan diren

hitzaldiak, besteak beste Olazar Jubilatuen Elkartek Azaroaren 29an antolatutako, Depresioa gaitzat hartuta, edo ta aste honetan bertan egin dena, kasu honetan Luis Ezeiza ikastetxean, eta gabon inguruko garai hauetan hain modan dagoen jostailuen gaien inguruan.

Ikusten denez, aurtengo Udazken Kulturala ere oparoa izan da, nahiz eta askotan jendea falta izan den.

PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO BARAUALDIA

Gabonetako tripakaden tartean, eta presoak eta euren eskubideak aldarrikatuz, presoek eskubideen aldeko baraualdi nazionalak izango du bere tartetxo Eskoriatzan ere.

Baraualdia Abenduaren 26an hasiko da, hilaren 30a arte luzatuko

dalarik. Egun hauetan, ura soilik hartzeaz gain, hainbat ekimen izango dira baraualdian daudenen eta kanpotik etorri daitezkeen guztientzako. Besteak beste, kontzentrazioak egingo dira, bideo emanaldiak, mahai inguruak eta hitzaldiak. Guzti hau, ohikoa denez, Kultur Etxean

izango da, eta parte hartu nahi duzuenok lo egiteko saku batekin agertu besterik ez duzue egin behar, esan bezala, Abenduaren 26an.

AKEITA

TABERNA

5etatik zabalik

Tfnoa.: 943715094

KAFE, PINTXO eta
BOKADILLOAK

Gaztañadui, 21

Xarmanta

Tf. 943 715387

ESKORIATZA

**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure Zerbitzura



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061



JOXERRA ZUBIZARRETA

Joan zen abenduaren 12an, datozen orrietan ikusiko duzuen bezala, Arizmendi Ikastola berria auekeztu zen, bailarako lau ikastola batuko dituen, ia 3300 ikaslerekin, eta Euskal Herriko Ikastola haundiena osatuz. Joxerra Zubizarreta izan zen aurkezpenaren lehen hitzak bota zituena, arizmendi Ikastolako Komunikazio arduradunari dagokion bezala.



Joxerra Zubizarreta, Arizmendiko komunikazio arduraduna

Zergatik sortzen da Arizmendi Ikastola bateratu hau?

Bailaran interkooperazioaren gaia oso garrantzitsua izan da aspaldidanik, eta ikuspuntu horretatik begirata, ez zen oso normala ikastetxe bakoitza bere kabuz ibiltzea. Eta hortik sortu zen indarrak batzearen eta gizarteari zerbitzu amankomun bat ematearen ideia, horretarako bide bakarra biltzearena iruditu zitzaigularik.

Zer suposatuko du honek bailararentzako?

Bilkura honek eskeintza oso zabal bat ikastola baten ikuspuntutik ematea ahalbidetuko du, labor labor esateko.

Hezkuntza sistema ere Globalizazioaren bidean al doa?

Alderantziz. Globalizazioak pentsamendua bakarria dakar, eta gu horren aurka gaude zalantzarik gabe. Ikastola bakarria izateak ez du inolaz ere esan nahi pentsamentu bakarria izango denik ikastola horretan. Izan ere, eskuartean dugun hau ez da hezkuntz proiektu bakar bat izango, dauden proiektu guztiak bilduko dituen kudeaketa gunea baizik.

Beraz, globalizazio, unifikazio eta batura suposatzen duenez, zentzu batean egongo bada ere, gaur egun

hain modan jarri den zentzu peioratibo horren kutsurik ez du izango.

Beste batura bat ere izan da duela oso gutxi bailaran...

Bai, eta guretzat oso pozgarria izan da Goienkariaren sorrera, horrek bailara mailako medioen batuketa suposatu baitu. Hori bai, norberak bere nortasuna gordetzen jarraitu beharko luke, baina horrelako proiektu amankomunek duten garrantzia haundia ahaztu gabe.

Euskal Herriko hezkuntza sistemari begiratu gero, zein diagnostiko egingo zenuke?

Zalantzarik gabe Ikastolek etengabe gora egiten dute, eta alde horretatik benetan eskertzekoa da gizarteak eskeintzen digun laguntza, beraiek baitira eskola eredua aukeratzen dutenak.

Orohar esateko, euskarazko hezkuntzak gora egiten du, eta hori oso positiboa da, nahiz eta buruhauste bat baino gehiago ematen dizkien hainbat politikariri. Gainera gure ikasleen emaitzak Estatuko

gainontzekoekin konparatu gero, orohar gureen media hobe delako ohartuko gara, eta hori datu objektibo bat da.

Zer deritzozu Nafarroan joan den astean ateratako legeari buruz, eta orohar, euskara jasaten ari den jazarpenari buruz?

Alde batetik farregarria iruditzen zait, baina bestetik oso serioa dela deritzot. Franco hil zenean, eta lurperatu zutenean, bere ideiak ere tonelada mordo haren azpian lurperatu zirela pentsatu genuen, baina argi da ez dela horrela izan.

Ikastolek eskarmentu haundia izan dute sortu zirenetik, eta berriro ere klandestinitatera jo beharra badaukagu, hala egin beharko dugu, baina segiko dugula ziur. Azken finean ikasleen gurasoak eurak dira ikasketa eredua aukeratzen dutenak

Ikastola bakarra Leintz osorako

Joan zen Abenduaren 12an bailarako hezkuntza mailan hurrats benetan garrantzitsu bat eman zen, Arizmendi Ikastola berria aurkeztu baitzen oublikoki. Aurkezpenean Antonio Campos Ikastolen Elkarteko Lehendaaria, Felix Ormaetxea Arizmendiko zuzendari nagusia eta Joxerra Zubizarreta izan ziren, azken hau Arizmendiko komunikazio arduraduna. Bi egun beranduago bere aurkezpen festa egin zen Arrasateko Amaia antzokian.

1996 urtetik elkarlan hestuan ibili badira ere, guztiek bat egiteko eguna iritsi zaie bailarako lau ikastolari, duela lau urtetik hona buruhauste bat



baino gehiago eman duen proiektu hau burutuz. Baina begibista atzerago bota beharra dago Abenduan aurkeztu den Arizmendi Ikastolaren nondik norakoak jakiteko.

Bailarako hezkuntarako ezinbestekoa izan den Liga de Educaci n y Cultura harekin sortu zen gaur egun Arizmendi denaren hazia. Liga de Educaci n y Cultura.k oso onarpen maila ona izan zuen bailarako gizartean, eta berari esker eman zen Debagoieneko hezkuntzaren sustapena, eta behar beharrezkoa zen hezkuntzarako eta

ikerketarako azpiegitura. Gerora Heibide bezala ezagutu genuen, eta orain, eta hemendik aurrera, Arizmendi Ikastola bateratua bezala.

Arizmendi ikastola bat da, baina kooperatiba integralaren izaera izango duen ikastola bat. Bere baitan bilduko dituen bazkideak, beraz, integrala denez, laneko bazkideak, bazkide onuradunak eta bazkide kolaboratzaileak izango dira. Bere zerbitzuei begiratuz gero, heziketa iraunkorraren eta lanerako prestakuntzaren esparruan dabilela ohartuko gara, arlo kultural eta sozialak ere ahaztu gabe, noski.

Arizmendi IKastola bost kudeaketa gune edo jestio unitatetan banatzen da: Haur Hezkuntza (0 eta 6 urte bitarteko haurrak), Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntza (6 eta 16 urte bitarteko gazteak), Batxilergoak (16 eta 18 urte bitartekoak), Lanbide Heziketa (16 eta 21 bitartekoak) eta bestelako ekintza batzu, azken honetan aipagarriak direlarik, besteak beste, hezkuntza aholkularitza eta prestatzaileen prestakuntza, gizarteari eman dkizkioken kultur eta hezkuntza zerbitzuak eta izaera bereziko beste proiektu batzu.

HAUR HEZKUNTZA:
Gazteenen hezkuntzan laguntza eman nahi da, eskola mailako zein eskolaz kanpoko ekintzak eskainiz.





Antonio Campos, Felix Ormaetxea eta Joxerra Zubizarreta

DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: Maila hauetako zerbitzuak ikasleen bizilekutik hurbil eskeini nahi izan ditu Arizmendi Ikastolak. Lehen Hezkuntzari dagokionez, bere inguruan txertatua egon nahi du, guztiengana irekia, balioetan hezitzeko eta ikasle bakoitzaren ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak eskatzen duen orientabide, dibertsifikazio eta aukerakotasunari behar adinako tamaina duten bi ikastetxe izango dira, Arrasaten eta Eskoriatzan.

BATXILERGOA: Eskualde mailako ikstetxe hau kalitate nabariko bi ikastetxeren esperientzia haundian oinarritzen da. Honela, gaitasun haundiko ikastetxe bat sortu da Hezkuntza Sistemak onartzen dituen modalitate eta ibilbide guztiak eskainai ahal izateko, eta horrela unibertsitate/karrera eta L.H.ko titulu guztietara iristeko. Eskoriatzan egongo litzateke kokatuta.

LANBIDE HEZIKETA: Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak izango dira, eta baita langabetuentzako Prestakuntza Okupazionala eta langileentzako Birziklaia ere. Ikastetxea Arrasaten

egongo da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditzen ez duten ikasleentzat Lanbide Hastapenak ere egongo da eskuragai Arrasateko Zaldibarren, Debagoieneko mankomunitateak Arizmendiri adjudikatutako hitzar, enaren bidez kudeatzen delarik.

Arizmendi Ikastola osatzen duten lau ikastolak Almen (Eskoriatza), San Frantzisko Xabier (Arrasate), San Viator (Arrasate) eta Umezaintza izango dira, 10 ikastetxe ezberdin izango direlarik, eta hamaikagarren laguntzaile bat, Aretxabaletako Santa Rita, 2 eta 6 urte bitarteko haurrak jasoko dituen, alegia. Aipatu hamar ikastetxeok honako hauek dira: San Viator Txiki, San Viator, Gazteluondo, Olarte, Ferixalekua, Santa Teresa, Zaldibar eta Umezaintza Arrasaten, eta Jose Arana eta Almen Eskoriatzan.

Arizmendi Ikastolak ia 3.300 ikasle izango ditu 2000-2001 ikasturte honetan, inguruko eskolarako adinean dagoen populazioaren bi herenak esan nahi duelarik. Baina ez hori bakarrik, Euskal Herriko ikastola haundiena ere bilakatuko baita. Proiektu hau.

ESKERRONAK

Ze barri? ren ale hau inprentara sartzeaz zegoela, Joxerra Zubizarretak azken orduko dei bat egin zigun, hainbat herritarrei eman beharreko eskerrak emateko. Hona hemen bidali nahi dizuen mezutxoa:

“2000. urtean zehar Jose Arana - Almen ikastolak antolatutako ekintzetan eta zuen beharra izan dugunetan lagundu diguzuen eskoitzar guztioi eskerrak emateko garai apropos hau aprobetxatu nahi dugu. Beraz, joan bitez beraientzat Eguberri jai zoriontsuak eta Urte Berri on eta oparoa gure izenean.”

**Iadanik bukatzen ari jaku
2000 garren urtie
zuen lana eta kemena
gure geuke goratzie
2000 ESKER nahi
dutzuegu
guztiori ematie
baita 2000 kilo ZORION
gerorako opatzie”**


ESKORIATZATIK MUNDURA ELKARTASUNAREN BIDETIK

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak iaz ekiniko bideari jarraituko dio aurtengo kurtsuan, Urtarrilean Hego Amerikako lau herrialde ezberdinetara joango diren Majisterioko 15 ikaslerekin.

Orainarte Eskoriatzarren abentura eta bidaiak hurbildu dizkizuegu atal honetan, eta gaurkoak ere hildo hori jarraituko badu ere, badu beste kutsu ezberdin bat. Izan ere, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak joan



Mundukide elkarteko kideak, iazko balorazioa eta aurrikuspenen aurkezpena egiten



Nerea Alzola, praktiken programako arduraduna

zen kurtsuan bide bat zabaldu baitzuen: elkartasunaren erlazioa elkartrukearen bidea, alegia. Iaz lau ikasle izan ziren, Humanitate arlokoak, Mexikoko hain ezaguna den Txia pas eskualdean, euren helburu bezala hango eredu kooperatiboak ezagutu, aztertu eta ikastea zutelarik. Beranduago Mexikarrak izan ziren hona etorri eta eskualde hau hain ezaguna egin duen kooperatiben

mugimendua eta beste hainbat ikasgai jasotzera. Dena den, eta Mundukide elkarteko Ion Sarasuak adierazi zigun bezela, "askotan pentsatzen dugu haiek direla gugandik ikasi behar dutenak, baina ez da horrela. Esate baterako, Azpiegitura aldetik, eta agian antolakuntza aldetik ere gu hobe egon gaitezke, baina kooperatibismoaren mamia aztertuz gero, garbi gelditzen zaigu badugula zer ikasia".


Aurten ere, esan bezala, bide horri ertsiko zaio, Urtarrilean 15 ikasle joango baitira Hego Amerikako lau herrialdeetara (Benezuela, Honduras, Nikaragua eta El Salvador), beraien artean eskoriatzar bat baino gehiago. Iazko ikasleekin konparatuz gero, desberdintasun nagusia aurtengo hauek Majisterio arlokoak direla da, eta han bete beharreko lana arlo horrekin zuzenkiago lotuta dagoela. Dena dela, eta Ainhoa Kortazar eskoriatzarrak adierazi zigun bezala, "ni neu Benezuelara noa, Maracaibora, eta badakit han alfabetatzearen eta matematikaren inguruko lana egin beharko dudala

haurrekin, baina ezer gutxi gehiago jakin dezakegu hara heldu eta han daukaguna ikusi arte”.

Praktiken elkartruke honen inguruan Elkartasun Astea antolatu zen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Abenduaren 11an hasi eta 15ean bukatu zena. Aste osoan zehar iazko esperientziaren ondoren Txiapasen jasotako argazkiek osatutako erakusketa izan zen ikusgai Fakultateko Areto Nagusian, eta benetan azpimarragarria iruditu zitzaigun handik pasa ginen gehienoi argazkien kalitatea. Honetaz gain, eta kasu honetan ere aste osoan zehar, Fakultateko kafetegian kafe solidarioa dastatzeko aukera eskeini zitzairen nahi izan zuten guztiei.


Astelehenean, Abenduaren 11, Urtarrilean bidaiatuko duten ikasleek euren proiektuen berri eman zuten, Elkartasun Asteari hasiera emanez. Asteartean iaz Txiapasen izandako lau gazteek euren esperientziaren berri eman zuten, eta hurrengo egunean Mundukide elkarteko kideak izan genituen, alde batetik Txiapasekin izandako elkartrukearen balorazio bat eginaz, eta bestetik aurrera begira buruan darabiltena azalduz.

Elkartasun Asteak Ostegunean izan zuen azken arnasa, bidezko merkataritzari eskeinitako eguna.



Egun honetan bidezko produktuak erosteko aukera izan zen, eta hasieran gai honen inguruko hitzaldia eta Salvadorreko Txampa kantautorearen

emanaldia iragarrita bazeuden ere, azkenean hitzaldiaz besterik ezin izan genuen gozatu. Lastima, baina orohar eskergarria ikasle hauen ahalegina.



Nahi izan zuenak bidezko merkataritzak eskeintzen dituen produktuak erosi ahal izan zituen, aste osoko kefeaz gain

Aurtengo gabonetan behikirik jarriko al duzu mahaian? Fidatzen al zara zure harakinaz?



Santiago Tostón

- Noski jango dugula, eta inongo beldurrik gabe, gainera.
- Bai, nire harakinaz fido naiz, bestela ez bainintzateke beti berdinarengana joango.



Julen Letona

- Urtero urtero jaten dugu, eta aurtun ere bai.
- Nere amatxo beti harategi berdinerara joaten da, eta beraz, pentsatzen dut fido izango dela berarekin.



Sabino Benito

- Ziuraski txuletaren bat eroriko da, nahiz eta behi eroen kontu horrekin argi ibili beharra dagoen, eta horregatik erosten dut haragi dena harategian, eta ahal bada bertakoa



Mari Carmen Blanco

- Egia esan ez diot beldur haundirik, baina ez nago ziur gabonetan jango dugun ala ez.
- Harakinagan ez badago konfidantzarik... bai berataz fido naiz.



Merche Horrillo

- Bai, Gabon hauetan ere jango dugu behikia. Ez dut uste beldurrik izan behar dugunik, hemengo haragia oso ona baita, eta noski harakinarengan ere konfidantza oso daukadala. Neuk ere harategi batean egiten dut lana...



Montse Pérez

- Zerbait jango dugu, beti sartzen baita zeozer menuan.
- Ez naiz beti harategi berdinerara joaten, baina baditut bat edo bi nere konfidantza dutenak.

Gaspar Vs. Olentzero

Olentzero maitea, nire ondoan zaudena. Ez dut itzulinguruka ibili gura. Egia esango banizu, bost inporta niri moskeatzen zaren ala ez, baina zerbaiten jakinaren gainean jarri nahi zaitut: **“joan zaitez pikutara, sudurluze goranahi halakoa!”** bezalako mezurik jasotzen baduzu, ez da guk bidalitakoa.

Zure ikazkin mozkor mutur hori asuntu hauetan sartzen hasi zinenean, guk geuk, behintzat, urte gutxi batzuetako kontua baino ez zela izango uste izan genuen, berehala etorriko zirela ostera ere urak bere onera. Eta txarrenera, folklore tantakatxo batzuek ez luketela kalterik egingo pentsatu genuen; aitzitik, zure lan berriari guk emandako oniritziak eskuzabaltasunaren erakustalditzat erabil genezakeela. Badakizu, erregalu-banatzaille erregionalen onarpenaren asuntua-eta.

Kontuak, ordea, luze jo du, eta ohitura aldaketa ere ekarri du berarekin. Hasieran ez genuen batere gustuko, baina hobeto pentsatuta, lana arintzen zigula iruditu zitzaigun, eta kalterako baino, hoberako zela; erregaluen banaketaren honek uzten zuela nahikoa leku guztiiontzako, eta egun diferentetan ibiltzen ginenez, ez zegoela konpetentzia konfliktu bat zertan deklaratu.

Komunitatearen elkarbizitzari kaltea egiten diozula entzungo duzu, honetan ere diferente izan behar hori gehiegikeria dela. Euskararena (alderdi vaskofonoetan, jakina, eta diskriminazio positiborik gabe, por supuesto), txapelarena, eta inkluso, ETBk pelota partiduak baino ez ematearena balekoak, baina zure intrusismoa onartezina dela esango dizute. Horrelakoak eta gogoragoak botako dizkizute, eta irudituko zaizu gu gaudela mezu horien atzean, baina, ez; elkarrekin muturka jarri nahi gaituzte, inolako zalantzarik gabe elkarrekin bizi gaitzkeenean. Jakin ezazu, gainera, gure elkartasuna osoa daukazula momentu zail hauetan.

Eta betirako ez desagertzeagatik Garzon epailearenean salaketa ipintzen badizute, geuk ere ez ditugu erregaluri banatuko. Denok ala inor ez.

Gaspar erregea
(eta bi sinadura gehiago)

Hemen nau manoimano Gasparrekin. Bai orijinalak “Ze Barri?”ko honeik be, bakotzak beria defendiruz daixela esanaz, “Olentzero ala Erregiak” lempien artikulua bana ez doskue ba eskatu ...

Honuzkero asmauko zauien, baina tira, bai, Olentzero naz. Olentzero naz eta aspalditxuen ernegauta nabil. Gabon/Eguberri sasoi hau ailegetan danian edozein tontolapikok libre dauko neuri buruz edozein gauza botatzia. Libre dauko dixot, neure izena, izana eta irudixa edorzertarako erabiltzia, eta hori edozein txorimalo neure irudixa dala esaten ez dauienien. Danak Olentzerokin!. Guardia Zibila besteik ez da falta Olentzero bat atarateko ... Danak dakixe nor nazen, nundik natorren eta nora noian. Batzuek jentilen munduen azken arrastoa naz, beste batzuek barriz Jesusitokin datozen sasoi barrixen edo “niu order”aren igarlia. Aukera bixen tartien gurozuen dana jarri, egongo da ta ontzat emungo dauena, astakeixarik haundixena izan arren. Sasiletrau kuadrila galanta!, danak filosofuak balie letxe.

Oin, falta jakuna, berbetan ez dakixen (bere gorentasunak hizketan eitten ei dau) eta berbigotolo fin dotoren akaberabako erretolirik botaten dauen aldameneko beste mutilzar honekin demandan hasi biher. Zeaittik eta ez batak eta ez bestiak eitten ez doun lan bategaittik. Izen be, ba daz bai hirukote hau ta ni aurrez aurre jartia gura dauienak. Baina nik, muserako ez bada, paso (muserako balitz enbido).

Kontua da azken urtietan tituluko “Olentzero ala Erregiak”, “Olentzero eta Erregiak” izatera pasau dala eta horrek ernegaziñoaz gaindi pausu bat emun eraitten dost eta sutan jartzen naz.

Irakurleok, onartuizue kontsumorako daukoziuen griña eta ez ipini inoren bizkarrien zueik dirua barra-barra jaurti izanaren arduria. Atkekixak alde batera itxi eta datozen belaunaldi barrixak jakin daixiela: oparixak ez dittugu guk eitten, gurasuak eitten dittuzte.

O'lentzero

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiak ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskal-herria.com

KONTZIENTZI ERAGOZPENA

* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, Gazte Bulegoan emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.

IKASTAROAK

* Guitrans garraiolarien elkarteak, nazio eta nazioarteko merkantzia garraioan trebatzeko ikastaroa antolatu du. Epea: urtarrilak 27.

LANA

* Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, pasa zaitez Gazte Informazio bulegotik.

DIRULAGUNTZAK

* Bilboko Udaleko "Bilbao" aldizkarian lan egiteko beka, 99ko uztailetik aurrera lizentziaturikoentzat. Epea: abenduak 28.

* Jose Migel Barandiaran Fundazioaren eskutik, Euskal Herriko Arkeologia eta Etnologia ikertzeko dirulaguntzak. Epea: abenduak 31.

* Europar Parlamentuan praktikak egiteko aukera. Epea: abenduak 31.

* Herri defendatzailearen Europako bulegoan praktikaldia burutzeko laguntzak. Epea: abenduak 31.

* "Caja Madrid"en eskutik atzerrian 2001-2002 ikasturtean postgradu ikasketak egiteko dirulaguntzak. Epea: martxoak 7.

LEHIAKETAK

* Euskarazko maitasun-gutun IX. Lehiaketa Bergarako "Jardun" taldearen eskutik. Eskuz nahiz makinaz idatziak, gehienez ere bi orrialdetako luzeran idatziak. Epea: urtarrilak 8.


* Portugaleteko 15. Komiki Lehiaketa. Gaia librea, zuri-beltzean edo koloretan eta 4 orrialdeko luzerako lanak. Epea: urtarrilak 31.

* AED Elkarteak XIV.Arrasate Lehiaketa antolatu du, ipuina, poesia, bertso paperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati erreportajea modalitateetan. Epea: otsilak 5.

JAIOTZAK

00/11/30: Jorge Marcos Carrasco

00/12/02: Paula Jara Perea



ESKORIATZA

| | |
|---------------------------|-------------------|
| Udaletxea | 943-714407 |
| Udal Bulegoak | 943-714532 |
| Udaltzaingoa | 943-714407 |
| Euskaltegia | 943-792168 |
| Kultur-Etxea | 943-714688 |
| Gizarte-Laguntzailea ... | 943-714688 |
| Kiroletxea..... | 943-715328 |
| Liburutegia..... | 943-713135 |
| Luis Eceiza..... | 943-714938 |
| Jose Arana-Almen Ikastola | 943-714486 |
| Almen | 943-714964 |
| Museo-Eskola | 943-715453 |
| Ze Barri? | 943-715434 |
| Talde Antimilitarista ... | 943-714537 |
| Irakasle Eskola | 943-714157 |
| Osakidetza | 943-714452 |
| Telesko | 943-714917 |
| Taxia | 943-714059 |

BESTELAKOAK

| | |
|---------------------------------|------------|
| Eskualde-Ospital (Arrasate) ... | 943-795300 |
| Gurutze-Gorria (Bergara) | 943-765576 |
| Ertzaintza (Arrasate) ... | 943-797199 |
| Suhiltzaileak (Oñati) ... | 943-792800 |
| Renfe (Zumarraga) | 943-721515 |
| Renfe (Gasteiz) | 945 232030 |
| Pesa (Arrasate) | 902 101210 |
| Larrialdiak (Arrasate)... | 943 771043 |
| SOS Deiak | 112 |



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Nissan Primera berria

Ibilbideaz goza ezazu



Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
e-maila: aldibi@elgoibar@nortekar.com